

Fermin Etxeagoien idazlea, atzo, Billboko liburu azokan, *Zinegotzia* izeneko bere bigarren eleberriararen aurkezpenean. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

## Eskuinetik, independentziara

Euskal Herriak independentzia lortzen duen eguna irudikatu du Fermin Etxeagoienek 'Zinegotzia' eleberrian

Itigo Astiz | Bilbo

«Eskumako zinegotzia berandu esnatu zen Euskal Herriaren independentzia bere eskutik etorri zen egunean». Eleberriko lehen esaldia heldu zitzaion lehenik Fermin Etxeagoien idazleari. Eta lehen harri horren arabera osatu du gero eraikina. Esaldi horretan bildurik omen dago nobela guztia. Eleberriararen arkitektura hamahiru hitzetan. Bertan da pertsonaia nagusia: eskumako zinegotzia. Bertan, kontakizuneko gertakari nagusia: Euskal Herriaren independentzia. Eta bertan

kontakizunaren iraupena ere: egun bete. Bi urte behar izan ditu, ordea, Etxeagoienek hamahiru hitzez osatutako esalditik 191 orriko nobela atera ahal izateko, eta atzo kaleratu zuen, azkenean. Eleberrian kontatzen den egun berean: 2013ko ekainaren 6an. Euskal Herriaren independentzia egunean. Horixe *Zinegotzia* (Erein) nobela.

«Ez duzu inoiz pentsatu politikari buruz idazterik?». Bere aurkezteko liburua aurkezpen ekitaldi baten amaieran bota zion galdera Itigo Arregi kazetariak. Izan ere, euskararen itzalguneak zituen ardatz *Autokarabana* eleberririk (2010ean Euskadi saria), eta politikarekin ere halako zerbait egitera ausartuko ote litzatekeen jakin nahi kazetariak. Eta azkar eman zuen erantzuna Etxeagoienek: ezetz, sekula ez zitzaiola burutik pasa halakorik. Baina barruan gelditu zitzaion harra, eta

hala sortu du eleberria. «Politikaren gaiari heldu behar banion, lehen momentutik hordagoa handira egitea erabaki nuen». Eta horregatik independentziaren gaia. «Eta, gainera, eskumako pertsona baten ikuspegitik», zehaztu du idazleak.

Izan ere, eskuineko politikari bat da eleberriko protagonista nagusia, eta haren gorabeheren bidez izango du irakurleak Euskal Herriak independentzia lortu duen egunaren nondik norakoen berri. Hasiera batean bozketan ezezkua emango duen hautetsiaren eskutik. Eleberrian ez da ageri zinegotziaren alderdiari buruzko izenik, baina argia da erreferentzia. Eta egileak ere onartu du pertsonaiaren kolorea: «EAJ bezalako alderdi batekoa da». Ez hautaketa ez da debaldekoa. «Ez dut nik euskal literaturan bere burua eskuinetatik identifika-

zatu duen pertsonaie buruzko nobela askorik gogoratzen. Guztiak dira ezkerrekoak, edo ezkerrekoak izandakoak. Hori da kasuaren %99,9. Eta zinegotzi hau ez da idealista bat. Ez du ideologiatan sinesten, eskuindar gehienek eginen ez duten bezala». Eta horregatik independentziari buruzko hasierako ezetza. Pragmatismoagatik.

### Eleberririko entretenigarria

Edo bai, behintzat, asmoetariko bat. Aitortu duenez, «liburu entretenigarria» idaztea izan baita bere xede nagusia. Eta argi utzi nahi izan hori. Berea ez dela politikari buruzko tesi bat. Ez baita independentzia liburuan lantzen den gai bakarra. Liburuan familiaria eta egunerokoei buruzko gogoetek ere garrantzi handia dutela nabarmendu baitu idazleak. Baina mantendu egin du miste-

ria, ordea, kontakizunaren amaierari buruz. Irakurleak lehen esalditik daki nola bukatuko den eleberria. Badaki egunaren amaierarako Euskal Herria independentea izango dela, baina hori lortzeko bidea zein izango den da koska. Eta hori da idazleak kontatu nahi izan ez duena.

### Eleberrian, 2013ko ekainaren 6an bihurtzen da Euskal Herria independente

### «EAJ bezalako» alderdi batekoa da eleberriko zinegotzia, idazlearen hitzetan

Gaurkotasanari adi idatzu du liburua Etxeagoienek, eta maiz aldatu behar izan omen du testua horren ondorioz. Gertakariaren abiatzean, kasik. Behin eta berriz aritu behar izan du idatzitakoa berridazten, hariak eta azkenean argitara ematea erabaki duen arte. Azaldu du zergatik. «Nik espero nuen lehenago bukatzea. 2012an edo. Eta 2012an zegoen kokatuta horregatik nobela. Baina ez zen garai ona. Ikusten nuen errealtateak jaten ninduela. Orain, ordea, urakanaren begian gaude la dirudi. Hauteskundeen ostean badirudi baretu dela kontua hemen, baita Katalunian ere. Barealdi moduko batean dago gaia, eta horregatik pentsatu nuen garai ona zela liburua ateratzeko, ez agian lau hilabete barru berriraldatu da dena».

Literaturaren muñera jo duela dio. «Pertsonaia bat sortu dut, eta mundura bota 24 orduz. Eta egun horretan gertatzen zaizkion gauzak eta haien gainean dagoen mundu soziopolitiko ekonomikoa da kontatu dudana». Eta amorea erabili du horretarako maiz. Ironiatik gertuko batzuetan, eta sarkasmoaren muga besteetan. Eta lehen orritik ageri du jarrera hori, gainera. Eskaintzatik hasita. «Herriaren zerbitzariei eskainia».

### Hilberria

## Tom Sharpe Wilten umore beltzaren aita

Literaturak sortutako pertsonaia ezagunenetakoa bat da Wilt, Tom Sharpek 1976an argitaratutako eleberririko homonimoan aurkeztua, eta Michael Tuchner zuzendariak 1989an zinemara aretoetako pantailetara eramana, izenburu bereko filmean. Pertsonaia horren bidez, umore beltz, mikatz eta sarkastikoa jorratu zuen, bere lan gehienetan bezala, Sharpek. Atzo hil zen


idazlea, Llafranc herriko bere etxean (Girona, Herrialde Katalanak). Dlabetesa zuen, eta haren ondoriozko odolaren zirkulazioan arazo batzuek oso makalduta eduki dute azken egunetan.

Londresen jaio zen Thomas Ridley Sharpe, 1928an, eta azken 24 urteak eman ditu Llafranc bizitzen. Haren gorpua Palafrugelleko beltatokian (Herrialde Katalanak) erre, eta

errautsak hiru tokitan banatu zituzte: Llafranc eta Ingalaterrako bi lekutan. Haietako bat Cambridge dela esan du; Sharpek hiri hartako unibertsitatean ikasi zuen historia.

Pertsonaia bakan eta arrarok, narrazioaren harian sortutako ezustek eta sexu kontuekin lotutako txantxe eta txistek zipiritintzen dituzte Sharperen lan guztiak, eta denetan dago Ingalaterrako gizarteari eginko kritika zorrotz bat.

Ez da egundoko Sharperen obrarik euskarara itzulita argitaratu, baina Ados Teatroa antzerki konpainiak oholztetarako



egokitu zuen *Wilt* nobela ia, *Wilt, pampina puzgarriaren hilketak* izenburuarekin. Mikel Lascurain, Isidoro Fernandez, Aitziber Garmendia, Miren Gojenola

eta Koldo Losada aktoreek parte hartu zuten, Garbi Losadak zuzenduta. Jose Mari Vitoriak, ekoizpen lana egiteaz gain, testua egokitu zuen, eta euskarara itzultzearen ardura Dorietan Urretabizkaia hartu zuen.

Sharpek obra horren gaztelaniazko bertsioa ikusi zuen —beste aktore batzuekin egina, Fernando Guillen Cuervo eta Ana Milián haien artean—, eta gustatu egin zitzaion, Tuchnerren *Wilt* filmak ez bezala. Datoren astean hiru emanaldi dauzke programatuta Logroñon (Espainia), eta Sharperri eskainiko dizkiote. ■ JUAN LUIS ZABALA